Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3963

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 29koa, Farmaziako zuzendariarena, José Mariano Quijano Rodrigo jaunari Amurrio udalerrian (Araba) farmazia-bulego bat sortzeko baimena ematen diona.

José Mariano Quijano Rodrigo jaunak aurkeztutako eskabidea ikusi da, Amurrio udalerrian (Araba) farmazia bulego bat sortzekoa. Hauek dira oinarriak:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Osasun eta Kontsumoko sailburuak 2010eko maiatzaren 25ean emandako Aginduaren bidez, Amurrio udalerrian –Aiarako farmazia-barrutian- farmazia-bulego bat jartzea bidezkoa zela ezarri zen. Hori dela eta, farmazia-bulego hori sortzeko prozedurari ekin zitzaion.

Bigarrena.– Farmazia horren titulartasuna nork lortu erabakitzeko, Merezimenduak Baloratzeko Batzordea osatu, eta kideak izendatu ziren 2009ko irailaren 11ko Aginduaren bidez. Ondoren, legez bete beharreko izapide guztiak beteta, Batzordeak 2010eko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bitartez, onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda onartu zuen, lehiakideak puntuazioaren arabera sailkatuta zeudela (2010eko otsailaren 9ko EHAA, 26. zenbakia).

Hirugarrena.– Erabaki horren aurka ez zen errekurtsorik aurkeztu.

Laugarrena.– Farmaziako zuzendariak, 2010eko martxoaren 18an, agiri ofiziala igorri zion José Mariano Quijano Rodrigo jaunari; horren bidez jakinarazi zion aurkeztutako merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena berak lortu zuela, eta ondorioz, ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari ekin behar ziola (338/1995 Dekretua, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa). Halaber, ohartarazi zion deialdian parte hartzeari uko egin ziola esan nahiko zuela, baldin eta xedapen horretan ezarritako epean eskatutako agiri guztiak aurkezten ez bazituen.

Bosgarrena.– 2010eko ekainaren 23an, José Mariano Quijano Rodrigo jaunak Amurrio udalerrian farmazia-bulego bat sortzeko baimen-eskaria aurkeztu zuen 338/1995 Dekretuaren babesean, eta, horrekin batera, dekretu horren 5. artikuluan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu zuen. Dokumentazioa 2010eko uztailaren 2an osatu zen.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

3963

RESOLUCIÓN de 29 de julio de 2010, de la Directora de Farmacia, por la que se concede a D. José Mariano Quijano Rodrigo autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Amurrio (Álava).

Vista la solicitud presentada por D. José Mariano Quijano Rodrigo, de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Amurrio (Álava), y sobre la base de los siguientes:

HECHOS

Primero.– Mediante Orden de 25 de mayo de 2010, del Consejero de Sanidad y Consumo, se determinó la procedencia de la instalación de una oficina de farmacia en el municipio de Amurrio, Zona farmacéutica Ayala, iniciándose el procedimiento para su creación.

Segundo.– Nombrados los miembros de la Comisión de Valoración de Méritos para el acceso a la titularidad de la reseñada oficina de farmacia, por Orden de 11 de septiembre de 2009 y, previos los oportunos trámites legales, ésta adoptó el Acuerdo de 13 de enero de 2010 por el que se aprobó la lista definitiva de concursantes admitidos y su clasificación por orden de puntuación que fue publicada en el BOPV n.º 26 de 9 de febrero de 2010.

Tercero.– Contra el citado acuerdo no se interpuso recurso alguno.

Cuarto.– Con fecha 18 de marzo de 2010, se remitió oficio de la Directora de Farmacia a D. José Mariano Quijano Rodrigo donde se señaló que, siendo el concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, debía proceder de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.º del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, con advertencia de que, transcurrido el plazo establecido en el citado precepto sin que aportada la documentación requerida, se entendería que renuncia a seguir participando en la convocatoria.

Quinto.– Con fecha 23 de junio de 2010, D. José Mariano Quijano Rodrigo presentó solicitud de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Amurrio, al amparo del Decreto 338/1995, adjuntando la documentación prevista en el artículo 5 del mencionado Decreto, que fue completada con fecha 2 de julio de 2010.

Aurkeztutako agiri horietan ikusten denez, farmazia-bulego berri hori honako helbide honetan dagoen lokalean ezarri nahi da: Aiarako farmazia-barrutian, Amurrio udalerriko Landaburu kaleko 7. zenbakian.

Seigarrena.– Azkenik, Farmazia-antolamenduko buruak, 2010eko uztailaren 28an, José Mariano Quijano Rodrigo jaunak aurkeztutako agiriei buruzko aldeko txostena egin zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariak dauka honako espediente honi buruz ebazpena emateko eskumena, halaxe ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia-antolamenduko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34. artikuluan, eta, xedapen horri lotuta, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 11. artikuluan.

Bigarrena.– Batetik, José Mariano Quijano Rodrigo jaunak izan du, aurkeztu diren merezimenduak baloratuta, puntuaziorik handiena; bestetik, farmaziak sortzeko ezarritako prozedura dela-eta, 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horretako 5. artikuluaren arabera, lehiakideak aurkeztu duen dokumentazio guztia eta erabilitako epeak egokiak direla egiaztatu da; horrenbestez, bidezkoa da farmazia-bulegoa sortzeko baimena ematea goian adierazitako interesatuari.

Dena dela, jardun ahal izateko baimena lortu beharko da, emandako baimenak indarra izango badu; hala ezartzen da 338/1995 Dekretuaren 6. artikuluko 4. paragrafoan.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– José Mariano Quijano Rodrigo jaunari farmazia-bulegoa sortzeko baimena ematea, Amurrio udalerrian (Araba), Landaburu kaleko 7an, farmazia-bulegoa jar dezan; betiere, berak aurkeztutako agiriak aintzat hartuta.

Bigarrena.– José Mariano Quijano Rodrigo jaunak, dena den, honen bidez emandako baimenak indarra izan dezan, farmazia horretan jardun ahal izateko dagokion baimena lortu beharko du aurretiaz; baimen hori eskatzeko, lau hilabeteko epea izango du, honako ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta, betiere, 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinarazi, eta aditzera ematea ebazpen honek ez duela administrazio-bidea amaitzen eta, horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa edo bidezko jotako beste edozein aurkez diezaioketela zuzendaritza honi edo Osasuneko

De la documentación aportada, cabe apreciar que el emplazamiento del local donde se pretende la instalación de la nueva oficina de farmacia es en el n.º 7 de la calle Landaburu, del municipio de Amurrio, zona farmacéutica Ayala.

Sexto.– Finalmente, el Jefe de Ordenación Farmacéutica con fecha 28 de julio de 2010, emite informe favorable sobre la documentación aportada al efecto por D. José Mariano Quijano Rodrigo.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– De acuerdo con lo señalado en el artículo 34 de la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en relación con el 11 del Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo, corresponde a la Directora de Farmacia dictar la presente resolución.

Segundo.– Siendo, D. José Mariano Quijano Rodrigo, el concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, cumplidas las previsiones contenidas en el artículo 34 de la Ley 11/1994 y desarrolladas en el Decreto 338/1995, en relación con el procedimiento establecido para la creación de oficinas de farmacia y comprobada la adecuación de la documentación aportada y el plazo de su entrega a lo dispuesto en el artículo 5.º del citado Decreto, procede conceder la autorización de creación de la oficina de farmacia al interesado.

Ahora bien, conforme a la previsión establecida en el artículo 6.º, apartado 4, del Decreto 338/1995, la autorización concedida quedará condicionada a la obtención de la autorización de funcionamiento.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Conceder la autorización de creación de oficina de farmacia a ubicar en la calle Landaburu, 7 del municipio de Amurrio (Álava) a D. José Mariano Quijano Rodrigo, de acuerdo con la documentación por él presentada.

Segundo.– Esta autorización queda condicionada a la obtención por parte de D. José Mariano Quijano Rodrigo de la correspondiente autorización de funcionamiento, que deberá solicitarse en el plazo de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución en el BOPV, y de conformidad con lo previsto en el artículo 7 del Decreto 338/1995.

Tercero.– Notifíquese a los interesados la presente resolución, con indicación de que no agota la vía administrativa y que contra ella podrán interponer recurso de alzada ante esta Dirección o ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir

sailburuordeari. Hilabeteko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 29a.

(Farmaziako zuzendariaren ordez, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuak xedapen gehigarrian dioenaren arabera).

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendaria,
PATRICIA ARRATIBEL UGARTE.

del día siguiente a su notificación, así como cualquier otro que estimen oportuno.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2010.

(Por suplencia de la Directora de Farmacia, según disposición adicional del Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo).

La Directora de Aseguramiento y Contratación Sanitaria,
PATRICIA ARRATIBEL UGARTE.